

## 2018. urterako ARAUDI PLANA

39/2015 Legeko 132. artikuluan jasotakoa betez, 2018. urtean Udal honek onartu edo funtsean aldatu nahi dituen araudiak edota ordenantzak honako hauek dira:

- **UDAL ERREGELAMENDU ORGANIKOA.**

Indarrean dauden toki arloko arauak Udal Erregelamendu Organikoaren edukiak araudi berriari sakon egokitzea eskatzen dute, batez ere, azken urteetan onartu diren erakunde eta administrazio legediari: gardentasun legeak, administrazio prozedura, sektore publikoko oinarritzko araubide juridikoa, jasangarritasun finantzarioa eta abar; baina, batez ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeari.

- **UDAL KIROL ZERBITZUEN ETA INSTALAZIOEN FUNTZIONAMENDUA ETA ERABILERA ARAUTZEKO ARAUDIA.**

Araudi honen bidez udal kirol zerbitzuak eta instalazioak erabiltzeko baldintzak eta horien erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak arautu nahi dira.

- **ETXEZ-ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN UDAL ERREGELAMENDUAREN ALDAKETA**

Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahairen barruan sortutako batzorde teknikoak etxez etxeko laguntza zerbitzuan sartu beharreko hobekuntzak proposatu ditu. Proposatutako neurri guztiak etxez etxeko zerbitzua jendearentzat erakargarriagoa egitera bideratuta daude: merkeagoa, jarraiegoa, ordu aldetik intentsitate handiagokoa, larrialdi egoeretara egokitua, modalitate berriekin eta behar beharrei irekia.

Indarrean dagoen etxez etxeko laguntza arautzeko udal zerbitzuaren erregelamendua 2006ko martxoaren 16an onartu zuen Udalbatzarrak. Orduetik 10 urte igarota, beharrezkoa da indarrean dagoen testua berraztertzea, eta batzorde teknikoak proposatutako hobekuntzak eztabaidatu eta erabaki ondoren, egungo testua eskaini nahi den zerbitzuaren funtzionamendura egokitzea, betiere, zerbitzua ematerakoan eraginkortasun eta ekonomia printzipioak kontuan izanik eta baita administrazio hau zerbitzuaren erabiltzaileengandik ahalik eta hurbilen egotea ere.

- **BIDEGORRIAREN ERABILERA ETA FUNTZIONAMENDU ORDENANTZA**

Bere helburua BIDEGORRIaren erabilera, zaintza eta funtzionamendua arautzea izango da berezko dituen erabileren eta aplikagarri zaion araudiaren arabera.



## **Plan Normativo 2018**

En cumplimiento de lo previsto en el art. 132 de la Ley 39/2015, la relación de ordenanzas y/o reglamentos que este ayuntamiento preve aprobar o modificar sustancialmente en el 2018 es la siguiente:

- **REGLAMENTO ORGÁNICO MUNICIPAL**

El marco normativo vigente en materia local exige adaptar profundamente los contenidos del ROM al nuevo marco normativo y sobre todo a la legislación institucional y administrativa que se ha aprobado en los últimos años: leyes de transparencia, procedimiento administrativo, régimen jurídico básico del sector público, sostenibilidad financiera, etc.; y, sobre todo, adaptación a la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euzkadi.

- **REGLAMENTO REGULADOR DEL USO Y FUNCIONAMIENTO DE LAS INSTALACIONES Y SERVICIOS DEPORTIVOS MUNICIPALES.**

A través de este Reglamento se pretende regular los derechos y obligaciones de las personas usuarias y las condiciones de uso de las instalaciones y servicios deportivos municipales.

- **MODIFICACION DEL REGLAMENTO MUNICIPAL REGULADOR DE AYUDA DOMICILIARIA**

Desde la Comisión Técnica creada en el seno de la Mesa Interinstitucional de Servicios Sociales de Gipuzkoa se hace una propuesta de mejoras a introducir en el servicio de ayuda domiciliaria (SAD). Todas las mejoras planteadas van dirigidas a hacer el SAD más atractivo para la población: más económico, más continuado, con más intensidad horaria, adaptado a situaciones urgentes, con nuevas modalidades y abierto a nuevas necesidades.

El vigente Reglamento del Servicio Municipal Regulador de Ayuda Domiciliaria fue aprobado por el Pleno del Ayuntamiento en fecha 16 de marzo de 2006. Transcurridos más de 10 años, se hace necesaria una revisión en el vigente texto para que, tras el debate y resolución sobre las propuestas de mejora que la Comisión Técnica proponga, el mismo se adecue al funcionamiento del servicio que se quiere ofrecer de acuerdo con los principios de eficacia, eficiencia y economía en la prestación de los servicios y del máximo acercamiento de esta Administración a los usuarios del mismo.



- **ORDENANZA DE USO Y FUNCIONAMIENTO DEL BIDEGORRI**

Tendrá por objeto regular el uso, protección y funcionamiento del BIDEGORRI de acuerdo con los usos propios y normativa de aplicación.

